ESKUARTEAK (milaka pesetatan)
RECURSOS (miles de pesetas)

| | | | |
|---|---|---|---|
| 6.3. | Autonomia-Elkartearen dirulag. / Subv. de la Com. Auton. | | 522.000 |
| 7.1. | Merkatalgai-salmenta etabar / Venta de mercancías, etc. | | 54.000 |
| 1.3. | Zabalkunde-irarketa / Publicidad emitida | 51.000 | |
| 1.4. | Beste zerbitzu batzuk / Otros servicios | 3.000 | |
| | Eskuarteen guztizkoa / Total recursos | | 576.000 |

## EKONOMIA ETA HERRIOGASUN-SAILA

258

Urtarrilaren 24eko 13/1983 DEKRETOA, biltze-ihardunaren alorrean, goradeien ihardutze-araupideei buruz.

Biltze-ihardunaren alorrean, Euskadiko Autonomia-Elkartearen berarizko eratze-moduak batetik, eta Euskal Herriko Diruzaingo Nagusiaren Erakuntzari buruzko Apirilaren 19ko 99/1982 Dekretoko 22-3 eta 24-1-b) Atalek aipatzen dituzten Bilketa-Hitzarmenak Foru Diputazioekin egiteko ahalpideak bestetik, komenigarri egiten dute goradeien araupideei ahalik eta argipide haundiena emango dien araupidetza bat ematea.

Horrez gain, Herri-Arduralaritzaren ardurapekoenganako harremanak errezagotzeko Jaurlaritzaren etengabeko nahiarekin bat etorriz, aurreko lerroaldian aipatutako Hitzarmenez baliatuz, Foru-Diputazioen Bilketa-Zerbitzuek egin ditzatenean hertsipenezko arduralaritza bidetikako egintzapide-idazkien aurkezteko tokiari buruz, bere 5. Atalak aipatzen duen araua Dekretoan sartu da.

Hori dela eta, Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuaren saloz, Jaurlaritzako Lehendakaritzak onartu ondoren, eta Jaurlaritzak 1983.eko Urtarrilaren 24ko Osoko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

*Lehenengo Atala.—Biltze-iharduneko lanarigoaren ekintzak*

1. Euskadiko Autonomia-Elkarteko Arduralaritzaren diru-izendapen eta harturenak eskuratzeko biderapenetan, biltze-iharduneko lanarigoarengandik ateratako ekintzen aurkako goredeiak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Herriogasun-Saileko Dirubidetzetako Sailburuordearen aurrean sartuko dira.

2. Autonomia Elkarteko Erakunde Burujabeen diru-izendapen eta harturenak eskuratzeko buruzkoetan, beren biltze-iharduneko lanarigoarengandik ateratako ekintzen aurkako goradeiak, aipatutako Erakundeen biltze-iharduneko zerbitzuen buruzagitza duten ihardutze-sailen aurrean sartuko dira.

3. Ekintzak, Euskal Herriko Diruzaingo Nagusiaren Erakuntzari buruzko Apirilaren 19ko 99/1982 Dekretoaren 22.3 eta 24.1.b) Ataletan jarritakoaz baliatuz izenpetutako hitzarmenak egiteratzeko, Foru Diputazioetako Bilketa-Zerbitzuko lanariek egin zitzatenean, aurreko bi idazatietan adierazitako agintepideek indarrean iraungo dute.

## DEPARTAMENTO DE ECONOMIA Y HACIENDA

258

DECRETO 13/1983, de 24 de Enero, sobre régimen orgánico de los recursos en materia recaudatoria.

La configuración organizativa propia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia recaudatoria, unida a la posibilidad de otorgamiento con las Diputaciones Forales de los Convenios recaudatorios a que se refieren los artículos 22-3 y 24-1-b) del Decreto 99/1982, de 19 de Abril, sobre Organización de la Tesorería General del País Vasco, aconsejan dictar una normativa que dote de la mayor clarificación posible al régimen de recursos, a cuya finalidad obedece la existencia del presente Decreto.

Además, y de acuerdo con el constante deseo del Gobierno de simplificar las relaciones de la Administración Pública con los administrados, se ha incluido en el Decreto la norma a que se refiere su artículo 5, sobre el lugar de presentación de escritos cuando la tramitación de los procedimientos administrativos de apremio se realice por los Servicios de Recaudación de las Diputaciones Forales al amparo de los Convenios señalados en el párrafo precedente.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda, previa aprobación de la Presidencia del Gobierno, y previa deliberación y aprobación del Pleno del Gobierno en su reunión del día 24 de Enero de 1983,

DISPONGO:

*Artículo primero.—Actos del personal recaudador*

1. En los procedimientos de recaudación de los créditos y derechos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, los recursos contra los actos emanados del personal recaudador se interpondrán ante el Viceconsejero de Finanzas del Departamento de Economía y Hacienda del Gobierno Vasco.

2. En los relativos a créditos y derechos de los Organismos Autónomos de la Comunidad Autónoma, los recursos contra los actos emanados de su personal recaudador se interpondrán ante el órgano que ostente la jefatura de los servicios recaudatorios de tales Organismos.

3. Las competencias expresadas en los dos números precedentes continuarán subsistentes cuando los actos hubieren sido realizados por personal del Servicio de Recaudación de las Diputaciones Forales, en ejecución de convenios suscritos al amparo de lo dispuesto en los artículos 22.3 y 24.1.b) del Decreto 99/1982, de 19 de Abril, sobre Organización de la Tesorería General del País Vasco.

*Bigarren Atala.—Dirubidetzako Sailbuordearen ekintzak*

Eusko Jaurlaritzako Dirubidetzako Sailburuordeak, biltze-ihardunaren biderapenetan hartzen dituen erabaki eta beste arduralaritza-ekintzen aurka, Euskadiko Ekonomia--Arduralaritzako Epaitegiaren aurrean ekonomia-arduralaritzazko zuzenketa-eskea sartu ahal izango da, aldezaurreko eta borondatezko birrabiatze-eskearen kaltetan izan gabe, eta guzti hori, horri buruz indarreango araupideekin bat etorriz.

*Hirugarren Atala.—Hertsipenezko bidearen geldiaraztea*

1. Hertsipenezko Arduralaritza-bideak geldiaraztezko eskabideak Dirubidetzako Sailburuordearen aurrean aurkestuko dira edo, hala beharrez, Erakunde Burujabearen biltze--ihardunekoko zerbitzuen buruzagitza daraman erakundearen aurrean.

2. Ekonomia-arduralaritzazko zuzenketa-eskea sartzea gerta dadinetan, hertsipenezko bideak geldiarazteko eskapideak Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiaren aurrean sartuko dira.

*Laugarren Atala.—Inorenak*

1. Autonomia-Elkarteko Arduralaritzaren eta bere Erakunde Burujabeen diru-izendapen eta harturenak eskuratzeko egindako hertsipenezko bideetan suzta daitezen inorenak, arduralaritza-bidean erabakitzea dagokio Dirubidetza--Sailburuordeari.

2. Dirubidetza-Sailburuordeak erabakiko ditu inoren zuzenketa-eskeak, Ekonomia eta Herriogasun-Saileko Ondare-Artezkaritzaren arauzko erizpena eman ondoren.

*Bosgarren Atala.—Idazkiak aurkezteko tokia*

Lehen aipaturiko 99/1982 Dekretoko 22.3 eta 24.1.b) Atalek aipatzen dituzten hitzarmenez baliatuz, Foru Diputazioetako Bilketa-Zerbitzuek hertsipenezko arduralaritza-bideen biderapena egin dezatenean, doakienek, Autonomia--Elkartearen eta bere Erakunde Burujabeen Arduralaritzako ihardutze-sailen aurrean, esandako biderapenez atera ditzaten goradeiak eta gainontzeko idazkiak Zerbitzu horien idazguetan aurkeztu ahal izango dituzte.

AZKEN ERABAKIAK

*Lehenengoa.—Egipideratze eta erabiltzea*

Ekonomia eta Herriogasun-Sailburua, Dekreto honen egipideratze eta erabiltzeak eskatzen dituen erabaki guztiak emateko ahalmendun gelditzen da.

*Bigarrena.—Indarrean sartzea*

Dekreto hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratutako egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, mila bederatzirehun eta larogeita hirugarreneko Urtarrilak 24.

Jaurlaritzako Lehendakaria,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Ekonomia eta Herriogasun-Sailburua,
PEDRO LUIS URIARTE SANTAMARINA.

*Artículo segundo.—Actos del Viceconsejero de Finanzas*

Contra las resoluciones y demás actos administrativos que en los procedimientos de gestión recaudatoria dicte el Viceconsejero de Finanzas del Gobierno Vasco podrá interponerse reclamación económico-administrativa ante el Tribunal Económico-Administrativo de Euskadi, sin perjuicio del previo y facultativo recurso de reposición, todo ello de acuerdo con la normativa vigente en la materia.

*Artículo tercero.—Suspensión de los procedimientos de apremio*

1. Las solicitudes de suspensión de los procedimientos administrativos de apremio se deducirán ante el Viceconsejero de Finanzas o, en su caso, ante el órgano que ostente la jefatura de los servicios recaudatorios del Organismo Autónomo.

2. En los supuestos de interposición de reclamación económico-administrativa, las solicitudes de suspensión de los procedimientos de apremio se deducirán ante el Tribunal Económico-Administrativo de Euskadi.

*Artículo cuarto.—Tercerías*

1. Corresponde al Viceconsejero de Finanzas la resolución en vía administrativa de las tercerías que se promuevan en los procedimientos de apremio seguidos para el cobro de los créditos y derechos de la Administración de la Comunidad Autónoma así como de sus Organismos Autónomos.

2. El Viceconsejero de Finanzas resolverá las reclamaciones de tercerías previo informe preceptivo de la Dirección de Patrimonio del Departamento de Economía y Hacienda.

*Artículo quinto.—Lugar de presentación de escritos*

Cuando la tramitación de los procedimientos administrativos de apremio se realice por los Servicios de Recaudación de las Diputaciones Forales, al amparo de los convenios a que se refieren los artículos 22.3 y 24.1.b) del Decreto 99/1982, antes referido, los interesados podrán presentar en las dependencias de esos Servicios los recursos y demás escritos que, en relación con dichos procedimientos, deduzcan ante órganos de la Administración de la Comunidad Autónoma y de sus Organismos Autónomos.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.—Desarrollo y ejecución*

Queda facultado el Consejero de Economía y Hacienda para dictar cuantas disposiciones requiera el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.—Entrada en vigor*

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación íntegra en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 24 de Enero de mil novecientos ochenta y tres.

El Presidente del Gobierno,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

El Consejero de Economía y Hacienda,
PEDRO LUIS URIARTE SANTAMARINA.